



**ALDEZ AURREKO KONTSULTA, 2020KO EKITALDIAN EGINGO DIREN  
ESKUALDAKETEI PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN  
ETA SOZIEATEEN GAINEKO ZERGAN APLIKATU BEHARREKO  
EGUNERATZE KOEFIZIENTEAK ONESTEKO FORU DEKRETU PROIEKTUAZ**

Xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako aurreproiektua/proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, 2020ko ekitaldian egingo diren eskualdaketei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak ezarri behar dituen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, azaroaren 22ra arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	<p>Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, xedatzen duenaren arabera, kostu bidezko edo kostu gabeko eskualdaketatik, dagozkien ondare elementuen eskuratze balioa eguneratu egingo da erregelamendu bidez onartzen diren koefizienteak aplikatuz, batez ere haien eskuratze egunetik kontsumoko prezioen indizeak izandako bilakaera eta haien eskualdatze ekitaldirako aurretiaz jotzen dena kontuan hartuz.</p> <p>Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko</p>
--------------------	---



	<p>zergarenak, xedatutakoaren arabera, ibilgetu materialaren, ukiezinaren edo higiezinetakoinbertsioen ondare elementuak eskualdatzean lortutako errenta positiboak zerga oinarrian integratzeko, ondoko hau kendu behar da, errenta horien mugaraino: eskualdatutako elementuari buruz legez baimendutako azken eguneratzetik edo elementu hori eskuratu zen egunetik, geroagokoa bada, izandako monetaren balio galeraren zenbatekoa, erregela batzuen arabera kalkulatuta. Horietako lehenengoak dio eskualdatutako ondare elementuen eskuratzeko prezioa edo ekoizpen kostua eta haiei dagozkien amortizazio metatuak erregelamendu bidez ezartzen diren koefizienteek biderkatuko direla.</p>
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	<p>Aipatutako kasuetan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak ezartzea.</p>
<b>ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	<p>Arau aginduak bete behar dira.</p>
<b>HELBURUAK</b>	<p>Aipatutako zenbatekoak eguneratzea.</p>
<b>EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)</b>	<p>Ez dago egokiagoa den bestelako arautze irtenbiderik.</p>